

MARGOTZEN ETA PARTEKATZEN

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Partekatzen ikastea, hori baita eskuzabaltasunaren oinarria.
Lankidetzaren eta taldeko lanaren garrantzia baloratzea.

Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

Beharko dugun materiala

Koloretako margoak (horia, orlegia, marroia eta gorria).
Txisparen ereduak eta margotzeko txantiloiak.

1. fasea: Margo dezagun Txispa

Jarri neska-mutilak launaka.

Talde bakoitzaren mahaiaren gainean, kolore bakoitzeko margo bat bakarrik utzi (horia, orlegia, marroia eta gorria).

Esan neska-mutilei margotzeko Txisparen txantiloia, ereduak dagoen bezala (petaloak horiz, zurtoina eta hostoak orlegiz, aurpegia marroiez eta ahoa gorriz).

Begiratu prozesuan zehar taldeetan arazorik sortu den edo haien artean haserretu gabe partekatu dituzten margoak.

Bukatzeko, hausnar dezagun

Txantiloia margotu ondoren, jarri ikasleak biribilean eserita, eta besteak beste galdera hauek egin:

- Nahikoa margo al zeuden?
- Baten batek berarentzat bakarrik hartu al ditu margoak?
- Nola lortu duzue zuen loreak margotzea? Margoak partekatu dituzue?
- Zuen anai-arreba eta lagunekin partekatzen al dituzue gauzak?

Adierazten dutenean oinarrituz, azpimarratu zein garrantzitsua den partekatzea, auzolana edo talde-lana egin ahal izateko.

Benetako superheroiak eskuzabalak dira.